

Eskolarteko infantil mailako txapeketa taldeka: liga sistema ezarriko da (dena denen kontra) 5 txandatan banatutako eta partidako eta jokalariko 15 minutu finish izango duten partidatan:

- 1.go txanda: maiatzaren 31an 10.00tan
- 2. txanda: maiatzaren 31an 10.40tan
- 3. txanda: maiatzaren 31an 11.20tan
- 4. txanda: maiatzaren 31an 12.00tan
- 5. txanda: maiatzaren 31an 12.40tan

Sari banaketa: 13:15tan

Mailak:

- o Taldeka: Infantilak (2000 eta 2001ean jaiotako neska-mutilak)
- o Banaka: Infantilak (2000 eta 2001ean jaiotako neska-mutilak)
- o 2. urteko alebinak (2002ean jaiotako neska-mutilak)

2. PARTAIDETZA

Banakako Alebinak: Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Historiko bakoitzetik 3 xakelari alebin (sexu bakoitzeko bat gutxienez) egon ahal izango dira, Jokoak ospatzen diren lurraldeetakoek laugarren partaidetza bat erabiltzeko aukera izango dute.

Banaka Infantilak: Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Historiko bakoitzetik 7 xakelari infantil (gutxienez sexu bakoitzeko hiru ordezkari) egon ahal izango dira.

Taldeka: Infantilak: lurralde bakoitzeko bi ikastetxe-talde (6 talde).

Talde bakoitzak lau jokalaria titular eta ordezeko bi, eskola kirolaren arautegian oinarriz jokalaria guztiak gutxienez partida bat jokatu beharko dute, eta taldearen



ordezkaria izango ditu. Taldeko partaide guztiak partida bat jokatu beharko dute gutxienez.

Lurralde bakoitzak ordezkari bat izango du.

Partehartzaile guztiak Aldundietako Eskola Kiroleko 2013/14ko zerrendetan izena emanda egon behar dute. Aldundiek ziurtagiri bat emango diote non zerrendan egotea ziurtatzen den eta zein ikastetxe edo elkartekoa den azaltzen den.

Lurralde bakoitzak txapelketa hasi baino astebete lehenago norbere lurraldeko irabazleen zerrenda emango du eta baita taldeen osaerarena ere telefono, fax edota e-mail bidez. Hau aldaezina izango da lurraldean justifikatutako eta onartutako kausa handi bat izan ezean

Lurralde guztietako ikastetxe edo elkarteetako neska zein mutilek hartu dezakete parte. Partaide batek beste ikastetxe edo elkarte bat ere defendatu dezakete., baldin eta aurretik ere herriko txapelketan bertan jokatu badu eta bertako zerrendetan agertzen bada.

3. BAKARKAKO ARAUTEGIA

Partidak apuntatzea derrigorrezkoa izango da, bandera jaitsi baino 5 minutu lehenago egiteari utzi daitekeelarik.

Taldekako partidetan erlojua erabiliko da eta jokalaria bakoitzak 60 minutu izango ditu partida hasieratik kontatuta.

Lehenengo txandara, bi txanda jarraituetara edota tartekatutako hiru txandetara agertzen ez den jokalaria kanporatua geratuko da.

Txanda batera agertzeko gehienezko itzarote denbora ordubetekoa izango da (txanda hasten den ordu ofizialetik aurrera).



Jokalariren bat lehenengo txandara, bi txanda jarraikietara edota tartekatutako hiru txandetara agertzen ez bada, kanporatua izango da.

Berdinketarik izanez gero bi jokalariren edo gehiagoren artean, honela jokatu da:

1. Puntuazio progresiboen batura.
2. Sistema Bucholz totala
3. Erdiko sistema Bucholz (Jolastu dutenen onena eta txarrena kenduta)

Jende aurrean zozketa eginda.

Edozein arazo sortuko balitz aurretik aipatutako talde teknikoa arduratuko litzateke eta bere epaia aldaezina izango litzateke.

Partehartzaile oro araudi hau eta FIDE-ren araudia errespetatu beharko ditu.

4. TALDEKAKO ARAUTEGIA

Ez da beharrezkoa partidak apuntatzea

Txapelketako unean bete gabe geratzen den hutsunea ezingo da bete izan lurraldeko antolatzailearengandik.

Lurralde guztietako ikastetxetako neska zein mutilek hartu dezakete parte. Partaide batek beste ikastetxe bat ere defendatu dezakete., baldin eta aurretik ere herriko txapelketan bertan jokatu badu eta bertako zerrendetan agertzen bada.

Txanda batean agertzeko gehienezko itxarotea 10 minutukoa izango da hasiera ordu ofizialetik hasita.

Talderen baten justifikatu gabeko ez agertze bat ematen bada, txapelketatik kanporatua izango da.



Talde bat baliozkoa izan dadin gutxienez 3 jokalaria izan behar du, bestela deskalifikatua izango da.

Bi taldek edo gehiagok puntutan berdinduz gero, ondoko sistema erabiliko da:

1. BEREN ARTEKO EMAITZA
2. SONNEBORD-BERGER
3. SISTEMA HOLANDARRA.
4. LEHENENBIZIKO TAULAN BELTZEKIN JOKATU DUTENAK

Txapelketako antolaketa eta epai taldea:

Txapelketako zuzendari nagusia eta bertako arduradun nagusia: M.A. Almansa.

Txapelketako epaileak:

Epai informatikoa: Lukas Iruretagoiena.

Nagusia infantil mailan: Ibon Martín.

Nagusia alebin mailan: J.M. Villanueva.

Edozein arazo sortuko balitz aurretik aipatutako talde teknikoa arduratuko litzateke eta bere epaia aldaezina izango litzateke.

Nesketan zein mutiletan sailkapen onena lortzen duenak (bakoitzak bere sexuan)

Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera izango du.

Partehartzaile oro araudi hau eta FIDE-ren araudia errespetatu beharko ditu.

5. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Taldekako lehiaketan: Sari bana lehen eta bigarren sailkatutakoei.

Banakako lehiaketan: Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.



6. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeronahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo behar da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

7. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1koa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2014ko urtarrilaren 3ko AGINDUA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e) Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2014ko urtarrilaren 14ko EBAZPENA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f) Xakeko Euskal Federazioaren Arautegiak.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeron, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.